

Erf.: Protokolo Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Bermeoko Udaleko Lehentasun, Zeremonia eta Protokoloari buruzko ordenantzearen aldaketa behin-betiko onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: 2016ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkureak, Bermeoko Udaleko Lehentasun, Zeremonia eta Protokoloari buruzko ordenantzearen aldaketa hasikeraz onartza erabagi eban.

Bigarrena: Onarpenaren iragarkia 2016ko ekainaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: Alegazinoak aurkezteko epean, txosten hau sinatzen dauan idazkariaren eta Josu Manuel Muñoa Santurce jaunaren alegazinoak aurkeztu dira.

b) Oinarriak

Lehenengoa: Ordenantzen onarpenari buruz, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLk, bere 56. Artikulua, hauxe jasotzen dau: "La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al procedimiento establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Para la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos deberán observarse los mismos trámites que para su aprobación."

Eta Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, bere 49. Artikuluan, honakoa arautzen dau: “La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al siguiente procedimiento:

- a) Aprobación inicial por el Pleno.
- b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
- c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.

En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional”.

Bigarrena: Kultura batzordeak alegazinoak aztertu daz eta ezeztatzearen aldeko erispenak emon daz. Hori horrela, aitatutako artikuluek dinoenari jarraiki, Osoko Bilkureak behin betiko onarpena egin behar dau, alegazinoak ebatzita.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko uztailaren 20an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria